

GOBERNU BATZARRA

2016. 12. 05

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Iñigo Alonso Sarasibar
Jokin Azkue Arrastoa**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abenduaren 5ean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2016Ko urria.
- 3.- Ordiziako hitzarmenaren likidazioa. Tolomendiren hitzarmena.
- 4.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.
- 5.- Ilarki. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua. Kontratuaren luzapena.
- 6.- Nura Elkartea. Tolosako Udalerrian arrisku egoeran dauden gazte eta adingabeen kaleko hezatzailleen esku-hartze zerbitzua.
- 7.- Tolosako Gaztelako atea birgaitzeko obren likidazioa (24/16 faktura).
- 8.- Berazubi biribilgunea eta suhiltzalekoen artean irisgarritasuna hobetzeko obraren esleipena.
- 9.- Garabide. 2016ko hitzarmena.
- 10.- Ilarki: euskararen erabilera planaren gaineko 2016ko hitzarmena.
- 11.- 38/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko azaroaren 28an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2016Ko urria.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian, mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten ekarpenak zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarria, zati finko bat eta zati aldakor bat finkatuz: zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko eta, zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko urtarrilaren 18an, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2016ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non, ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

Bestalde, Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo faktura aurkeztu du:

2016ko Urria 116.191,18

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo faktura:

2016ko urria 116.191,18

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari Zerbitzu arloari eta Tolosaldea Mankomunitateari.

3.- Ordiziako hitzarmenaren likidazioa. Tolomendiren hitzarmena.

Gaia hurrengo Batzorderako uzten da.

4.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 74.308,34 euroko faktura onartzea, azaroako Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari

5.- Etxez etxeko zerbitzua. Hitzarmenaren luzapena.

Ilarki Elkargoak udal honetako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren helburuak ondo bete dituela ikusita eta udalarekin sinaturik duen etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren luzapena egitea proposatu dela Gizarte Politikako batzordean, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Luzatzea Udalak Ilarki Elkargoarekin sinaturik duen hitzarmena, ezarrita dauden klausulen arabera.

BIGARRENA.- Luzapena izatea 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31arte.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ilarki Elkargoari, kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

6.- Tolosako Udalerrian arrisku egoeran dauden gazte eta adingabeen kaleko hezitzaileen esku hartze zerbitzua. Hitzarmenaren luzapena.

Gizarte Politikako batzordeak proposatu du, programa egoki bete duenez, "Arriskuan dauden adin txikikoen"ari dagokion kontratua luzatzea Nura Gizarte Elkarteari.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Nura elkartearekin sinatu zen hitzarmena luzatzea, ezarrita dauden klausulen arabera.

BIGARRENA.- Luzapena izatea 2017ko urtarrilaren 21etik 2018ko urtarrilaren 20a arte.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Nura elkargoari, Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- Tolosako Gaztelako atea birgaitzeko obren likidazioa (24/16 faktura).

Tolosako Udalak Uzturpe Eraikuntzak, S.L, enpresari esleitu zion "Tolosako Gaztelako Atea birgaitzeko" obren kontratua, eta 65.251,39 € izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako lehena eta aldi berean likidazioa honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

1. ziurtagiria..... 24/16 64.534,42€

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea "Tolosako Gaztelako Atea birgaitzeko obren likidazioa, 64.534,42 €koa.

BIGARRENA.- Onartzea "Tolosako Gaztelako Atea birgaitzeko" obren 1. ziurtagiria, 64.534,42 €koa.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Uzturpe Eraikuntzak, S.L, enpresari eta Kontuhartzailetzari.

8.- Berazubi biribilgunea eta suhiltzalekoen artean irisgarritasuna hobetzeko obraren esleipena.-

2016ko uztailaren 26an egindako Gobernu Batzarrean onartu zen "Berazubi biribilgunea eta suhiltzalekoen artean irisgarritasuna hobetzeko" obrak kontratatzeko espediente eta Klausula Administrazioen agiria.

Izapideak egin ondoren, lizitazioa GAOn eta Kontratatzailearen profilean, argitaratu zen, interesatuek proposamenak aurkez zitzen.

8.- Adjudicación de las obras de Mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de bomberos

La Junta de Gobierno, de fecha 26 de julio de 2016, aprobó el expediente y los pliegos de condiciones administrativas para contratación de las obras de "Mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de bomberos".

Tramitado el correspondiente expediente de contratación mediante procedimiento abierto se publicó el anuncio en el BOG y en el perfil de contratante, a fin de que los interesados presentaran sus propuestas.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

Probisa Vías y Obras, S.L.U.
Construcciones Mariaezcurrena, S.L.
Sasoi Eraikuntzak, S.L.
Urbycolan, S.L.
UTE Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A.
Campezo Obras y Servicios, S.A.
UTE Orsa, S.L.-Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L.

Durante la licitación se han presentado los siguientes licitadores:

2016ko azaroaren 11an, Kontratazioa mahaiak, azaroaren 7an egindako txosten teknikoaren arabera honako hau proposatu zuen: UTE Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A., enpresari adjudikatzea.

Horretan guztian oinarrituta, 2016ko azaroaren 11ko 2036 dekretuaren bidez UTE Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A., enpresari errekeritu zitzaion zenbait dokumentu aurkezteko.

2016ko azaroaren 25ean aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

Horregatik guaztiagatik, eta kontutan harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuaren Testu Bateraruaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

Con fecha 11 de noviembre de 2016, la Mesa de contratación, de conformidad con el informe técnico emitido el 7 de noviembre de 2016, realizó la siguiente propuesta: adjudicar las obras a la empresa UTE Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A.

En base a ello, mediante decreto nº 2036, de fecha de 11 de noviembre de 2016, se requiere a la empresa UTE Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A., la presentación de determinada documentación.

El 25 de noviembre de 2016, presenta la documentación requerida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y el dictamen de la Comisión de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía

ERABAKI DU

Lehena.- Lizitazio egintza baliokotzat jotzea eta UTE Berazubi Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A., enpresari adjudikatzea “Berazubi biribilgunea eta suhiltzalekoen artean irigarritasuna hobetzeko” “obretako kontratua, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 370.121,96 € (BEZa barne).

RESUELVE

Primero.-Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa UTE Berazubi Otegui-gaztañaga, S.L. – Asfaltos Urretxu, S.A., el contrato para la ejecución del proyecto “Mejora de accesibilidad de la rotonda de Berazubi a la rotonda de bomberos”, en los siguientes términos:

- Precio: 370.121,96 € (IVA incluido).

- Exekuzio epea: 6 hilabete.

- Plazo de ejecución: 6 meses

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal teknikariak txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek laburbilduta,

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el técnico municipal y que se resume de la siguiente manera:

PLEGUA	ESKANTZA EKONOMIKOA	EUSKERA	OBRAREN ANALISIA ETA AFEKZIOAK				GUZTIRA
			ATAL NABARMENENAK	LAN PROGRAMEN BIDERAGARRITASUNA	TRAFIKOA	ONDOKO EREMUEKIKO ERAGINA	
			2,5	2,5	10	5	
	60	5					85,00

LIZITATZALEA		ESKANTZA EKONOMIKOA	EUSKERA	ATAL NABARMENENAK	LAN PROGRAMEN BIDERAGARRITASUNA	TRAFIKOA	ONDOKO EREMUEKIKO ERAGINA	GUZTIRA
1	PROBISA	58,72	0,00	0,25	0,25	1,00	0,50	60,72
2	MARIEZCURRENA	37,02	5,00	1,00	1,00	3,00	2,00	49,02
3	SASOI	60,00	5,00	1,00	1,00	3,00	4,00	74,00
4	URBYCOLAN	50,62	5,00	1,50	1,50	5,00	2,50	66,12
5	OTEGUI-GAZTAÑAGAURRETXU	56,87	5,00	2,00	2,25	7,00	3,50	76,62
6	CAMPEZO	48,49	5,00	2,50	2,25	9,50	4,75	72,49
7	ORSAIPARRAGIRRE	42,15	5,00	1,00	1,00	2,50	2,00	53,65

Hirugarrena.- Aurzketu diren lizitatzailerik guztiei adjudikazio hau jakinaraztea

Tercero.- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

Laugarrena.- Kontratua formalitzatzeko hamabos baliodun eguneko epea jartzea, lizitatzailerik adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

Cuarto.- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

Bosgarrena.- Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Adizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, adjudikaziotik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

Quinto.- Publicar la formalización del contrato en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de adjudicación.

9.- Garabide. 2016ko hitzarmena.

GARABIDE Elkartek urteak daramatza garapenerako euskal lankidetzaren barruan kooperazio ildo berri bat lantzen; hain zuzen ere, garapen-bidean dauden herrietako hizkuntzak normalizatzeko egitasmoak sustatzea, honako helburu hauekin:

1. Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzak bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.
2. Norabide horretan, munduko Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuetakoa eragileekin lankidetzak proiektuak garatzea. Lankidetzak proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor batzuetan gauzatzen dirá, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarritz.
3. Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuetik lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Tolosako Udalak, bere aldetik, diru laguntzak eman ohi ditu, garapen-bidean dauden herrietan proiektuak sustatzeko, eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egoki ikusi du Garabide elkartearekin batera hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzea eta 2014an hasitako elkarlanari jarraipena ematea.

Horrenbestez, ikusita Garabide elkartearen egitasmoa, eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

ERABAKI DU

LEHENA.- Garabide elkarteari 4.000 euroko dirulaguntza ematea 2016ko udal aurrekontuen kargura.-

BIGARRENA.- Aipatu dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea Garabide eta Tolosako Udalaren artean.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Garabide elkargoari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari.

10.- Ilarki: euskararen erabilera planaren gaineko 2016ko hitzarmena.

Tolosako Udalak, kontuan izanik Euskararen udal ordenantza eta onartuta duen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, dirulaguntzak bideratu izan ditu arlo sozioekonomikoan; hain zuzen ere, enpresetan euskararen erabilera sustatzeko plangintzak aurrera eramaten laguntzeko.

Ilarki Elkargoa enpresak 2016 urterako euskararen erabilera plangintza eta aurrekontua aurkeztu zituen Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordean, Udalak egoki ikusiz gero dirulaguntza eskuratzeko.

Horrela, ikusita Ilarki enpresaren 2016ko euskara plana, eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki enpresari 1.724 euroko dirulaguntza ematea 2016ko udal aurrekontuen kargura, 2016ko euskararen erabilera planerako.-

BIGARRENA.- Aipatu dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea Ilarki enpresaren eta Tolosako Udalaren artean.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Garabide elkargoari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari.

11.-39/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **39/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **236.267,92 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **39/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde